

ANICETO ZUGASTI IRIONDO (1904-1983)

Iragan Irailaren 4ean hil zen Donostian Aniceto Zugasti ohorezko kalonjea eta Euskaltzaindiko urgazlea. Sortzez Gipuzkoako Altzan jaioa zen 1904. urteko Apirilaren 17an.

Andoain eta Gasteizen egin zituen apezetarako ikasketak, hogeitahiru urte bete orduko burutuak. Apaiz egin orduko bere gogoia euskarari emana zen eta *Euskal Esnalea* zeritzan aldizkarian argitaratu zuen "Bareak" (1926) zeritzan ipuina. Garai hartan hasi zen olerkari mugimendu berria loratzen eta ekintza haren eraginez kezkatu-rik idatzi zuen "Mendi-mendian" (1932) izenburuz ezagutzen den olerkia, arestian aipatutako aldizkari berean. Horrez gainera, gerra aurreko aldi hartan, *Argia*-ren zuzendari ordea izan zen.



Aniceto Zugasti Iriondo (1904-1983)

Bere apaiztzako lehen aldiari Arabako Lanziegion egondua zen koajutore eta organo-jole. Handik Gipuzkoara itzuli zen, Pasaiako San Pedrora lehenik eta Plaentzi-Soraluzera gero Agustinetara. Bietan kaperau edo omonier. Azken urteok ordea Donostian igaro ditu. 1952an katedraleko beneficiario eta 1980tik ohorezko kalonje.

Euskal Esnaleaz aparte *Argia*, *Aránzazu*, *Egan*, *Zeruko Argia* eta beste zenbait aldizkaritan argitaratu zituen euskarazko lanak. Baina bere lanetarik berezianak honako liburu hauek zituen: *Maiatze'ko Loreak* (Zarautz, 1950); *Jesus'en Biotzaren illa* (Zarautz, 1951); *Argi-bidea* (Zarautz, 1951); *Argi-bide txikia* (Zarautz, 1957); *Bederatziurrenak* (Pasaia, 1951); *Esotzi'ko Andre Mariari* (Zarautz, 1952); *Amabirjiña Miraritsuari* (Donostia, 1962); *Salmudia*, J. Kerexetarekin elkarlanean (Donostia, 1968); *Itun berria*, N. Ormaetxea "Orixe" eta J. Kerexetarekin elkarlanean (Donostia, 1967). Horietakoa zenbaitzuk birargitalpenak ere ezagutu dituzte.

Gipuzkoako Apezpikutegian Liturgia itzultzaile batzordekoa zen eta erlijio alorrean beste lan anitz eginak zituen.

Bere idazkeraz oso giputza zen eta inoiz ez zion amore eman euskara batuari. Batz ere H letrak izutzen zuen gizona, eta euskara idatziaren batasuna aipatzeaz sutzen zen. Baina, horregatik ez uste izan erenegatik esan ohi den jenio txar horietakoa zenik. Haserretik laster baretzen zen lanari oratzeko. Gainera, hizkirimiriak eta lagunarteko solasa maite zituen, eta bazkalondoetan mahain inguruan umorea franko zabaltzen zuen. Horretarako, abots oneko kantu-zalea bai zen eta bazekien bazterrak alaitzen. Kantak ere ez zituen hautatzen nolana hikoak. Adibidez, gogoko zuen Bilintxen Potajiarena: "Egunaren izena / ez dakit nola zan / ..." hasten zuenean, irriz eta indartsu agertuko zituen apez jatun hura aipatzen diren pasarteak, ingurukoei adarra joaz.

Anizeto Zugasti zenagandik oroigarri zaigu apez zintzo eta euskaltzale kartsua, ordu alaiak eskaitzen zekiana bera baino anitz gehiago hain isilik hainbeste lan burutu zituen euskal idazle zena. G. B.

J. S. M.